

# Hegoaldeko Goinafarrera zaharra: aditz laguntzaileekiko ezaugarri zenbait<sup>1</sup>

GONTZAL ALDAI\*

## ERABILITAKO TESTUAK

- Promesa de matrimonio de Uterga (1547). Sarasola (1983: 103-104).
- Promesa de matrimonio de Zufia (1552). Mitxelena (1964: 149-150).
- Promesa de matrimonio de Esparza (1557). Mitxelena (1964: 152-154).
- Fragmentos de un catecismo Alto-Navarro. Sarasola (1983: 117-123).
- Octava de don Miguel de Suescun. Mitxelena (1964: 110-111).
- Poesías premiadas en Pamplona en 1609. Mitxelena (1964: 111-118).  
Orain baita: Kerexeta (1991: 162-166).
- Credo de Zannetto (1614). Mitxelena (1964: 162-164).
- Juan de Beriain (1621): *Tratado de cómo se ha de oyr missa*. Ed. Facsimil: Euskal Klasikoak 30. Hordago, Donostia, 1980.

\* University of Southern California.

<sup>1</sup> Lan hau 1994-95 ikasturtean idatzi nuen. Eskerrak eman nahi dizkiot Aita Patxi Altuna irakasleari, orduan egin zizkidan oharrengatik. Oso probetxagarriak izan ziren baita R.M. Pagolarekin eta J. Ortiz de Urbinarekin izan nituen hizketak. Harrezkeroz ezagutu ditut gaiarekin erlazio estua duten zenbait lan berri. Aipagarrienak, Goinafarrerari dagokionez, J.M. Satrustegi (1990), M.J. Kerexeta (1991) eta R.M. Pagolaren (1995) lan bikainak dira. Hizkuntzalaritza orokorrean, aldiz, eta \**erazan* laguntzailearen erabilera azaltzeko bidean, argigarri oso suertatu zaizkit kausatiboez eta trantsitibitateaz diharduten liburu eta artikuluko asko ere. Halere, funtsean bere horretan utzi dut lana, aldaketa handirik egin gabe, ez bada erantsi ditudan orripeko ohar batzuegatik. Dena den, Tipologia Linguistikoak emandako kausatiboei buruzko ideia berriek berrindartu dute \**erazan*-i buruz neukan ikuspuntua: oso gai garrantzitsua dela uste dut, ez soilik Hegoaldeko Goinafarrerarako, baizik eta orokorrean euskararen historiarako. Honek eragin dit, beraz, \**erazan* eta orohar NOR-NORI-NORK laguntzaileei buruzko gaiaz, lan honetatik banatu eta, artikuluko berri bat planteatzera.

Azkenez, eskerrak eman nahi nizkio baita Alberto Aldayri, bere laguntza ordaingaitzagatik.

- Juan de Beriain (1626): *Doctrina Christiana*. Pagola (1995: 26-69).
- Padrenuestro de Hervás. Satrustegi (1990: 46). (Ikus 9. oharra).

## 1. SARRERA

*Basta consultar la documentación disponible que, si no es excesiva, tampoco es escasa para llegar sin vacilaciones a la conclusión de que las diferencias entre vizcaino y dialectos más orientales no han hecho más que crecer sin descanso desde los siglos XV-XVI hasta nuestros días.* Mitxelena (1981: 43).

Ez dira asko zoritxarrez Hegoaldeko Goinafarrera [Hg(GN)] Zaharraz (XVI-XVII mendeetako) ditugun testuak. Esate baterako, Mitxelenak goiko pasartean aipatzen duen Bizkaiera Zaharrarena baino askoz murriztagoa da Goinafarraren dokumentazioa garai horretako. Garrantzitsuena, kuantitatiboki behintzat (luzez, gainera), Beriainen obra dugu beste dokumentazio guztia testu laburrez osatutakoa delarik. Ez horregatik, ordea, inportantzia gutxiko testuak.

Luzeagoa da, aldiz, Hg(GN) “Klasikoa” dei genezakeenaz (XVIII-XIX mendeetako) dugun dokumentazioa (besteak beste, Elizalde, eta, batik bat, Joaquín Lizarraga). Horregatik eta bere hurbiltasun kronologikoa dela eta, Hg(GN) Klasikoa ezagunagoa egiten omen zaigu Hg(GN) Zaharra baino. Hobeto ezagutzen dugularik, badakigu ere hainbat ezaugarri “tipiko” dituela Hg(GN) Klasikoak, guztira beste euskalkietatik nahiko nabarmenki bereizten direnak.

Artikulu honetan Hg(GN) Zaharraren zenbait ezaugarri aztertuko ditugu. Apur batzu baino ez; inola ere ez exhaustibitatea helburutzat harturik. Gainera, ezaugarriok aditz laguntzaileekin erlaziorik dutenariakoak dira guztiak. Hala ere, ondorioak, ikusiko dugunez, nahiko adierazgarri eta orokortzat har daitezkeela dirudit.

Artikuluaren xedea zera da: erabakitzea hemen aztertuko ditugun ezaugarriek zer nolako aintzinasuna duten Hg(GN)ren historian. Hau da, ea arkaismoak ala berrikuntzak diren; eta berrikuntzak izatekotan, ea modernoak (garai Klasikoan bai, baina garai Zaharrean agertzen ez zirenetakoak) ala zaharrak diren (lehenengo testuetarako jadanik agertzen zirenetarikoak).

Konklusioak azkeneko atalerako utziko ditugu. Dena den, aurrera genezake dagoeneko, Mitxelenak Bizkaierarako esaten zuen antzera, Hegoaldeko Goinafarrera Klasikoaren ezaugarri bereizle asko oso aldaketa berriak direla, eta ez dutela estali behar garai zaharretan orokorki euskalki guztiek amankomunean zuten antzekotasun handiagoa. Lehenengo testuen garairako, euskalkiek bazuten ezaugarri bereizlerik, jakina; alabaina, XVI mendetik egunera bitartean ezberdintasunak ugartuz joan dira, eta gaur egungo euskalkien arteko diferentzia asko, azaletik nabarmenak izan arren, oso modernoak dira.

## 2. BERRIKUNTZA MODERNOAK

Atal honetan ikusiko ditugun ezaugarriak oso berrikuntza modernoak dira Hg(GN)ren historian. Nahiz etz Lizarragaren hizkuntzan, adibidez, oso

adierazgarri izan, ez dira agertzen hemen dagozkigun testu zaharretan. Honetan, beraz, Hg(GN) Zaharra askoz hurbilago zegoen euskara “komunago” batetik ezen ez Hg(GN) Klasikoa.

- |  |                                    |
|--|------------------------------------|
| a) Hg(GN) Klasiko: <i>–zie, –ze</i>              | / Komunago: <i>–zue</i>            |
| b) Hg(GN) Klasiko: <i>tu</i>                     | / Komunago: <i>ditu</i>            |
| c) Hg(GN) Klasiko: <i>eskatzeeunzien</i>         | / Komunago: <i>eskatzen duzuen</i> |
| d) Hg(GN) Klasiko: <i>gaitzen</i>                | / Komunago: <i>gaitezen</i>        |
| e) Hg(GN) Klasiko: <i>tio (&lt; ditio)</i>       | / Komunago: <i>dizkio</i>          |
| f) Hg(GN) Klasiko: <i>dezkie (&lt; dezazkie)</i> | / Komunago: <i>ditzan</i>          |

### 2.1. Ezaugarri fonetikoak

Aurreneko lau ezaugarriek (a–d) (lau jarri ditut lagin moduan, baina gehiago ere ipin litezke) fenomeno fonetikoetan dute oinarri, eta jarraian ikusiko dugunez, ez dira agertzen Hg(GN) Zaharreko gure testuetan:

- a– Poesías premiadas (1609):  
125. *Çatoste, çatoste, nay badu<sup>çue</sup> jan.*
- b– Fragmentos de un catecismo:  
/No clasificados/ *beardituzten.*
- c– Credo de Zannetto (1614):  
8. *Sinistasendut Spiritu Sanduaren vaytan.*
- d– Poesías premiadas (1609):  
114. *Ass<sup>2</sup> gait<sup>çen</sup> lanean.*

Adibide bana baino ez dut ekarri, baina askoz gehiago eskaini daitezke erraz. Beriainek milaka ditu honelakoak; hots, aurkeztutako fenomeno fonetikoak jasan gabekoak. Hortaz, delako fenomeno horiek nahiko berri dira Hg(GN)ren historian.

### 2.2. Ezaugarri morfologikoak

Arestian emandako ezaugarriekin jarraituz, azken biak (e–f) maila morfologikoari dagozkio. Hauek ere berrikuntza modernoak dirudite argi eta garbi. Hona hemen Hg(GN) Zaharrean aurkitzen duguna:

- e– Beriain (1626):  
141v. *Orlatan barcatuco dizquio becatariari bere becatuac.*

Beriain (1621):  
31v: *[Ayngueruec] graciac ematen dizquiotela [Iesu Christori], guri eguiten dizquigun merchedes.*

Ikusten denez, testu zaharretan ez dira ageri Elkanoko Lizarragarengan hain bereizgarri diren NOR-NORI-NORK \**edun*–en objeto pluraleko formak: *tio* (batuaz *dizkio*), *tiote* (batuaz *dizkie*). Egia esan, Elizalderengan ere (1735)

<sup>2</sup> Mitxelenaen edizioan “*ari gaitezen*” (1964: 115).

oraindik aurkitzen ditugu jatorrizko formak: *Jangoycoac barcacen dizquio becatu mortale guciac* (*Capitulo amecagarrena*, Pagola 1994:53).

f- Beriain (1621):

45v. ar *dizagun* ayec ematen dizquiguten consejuac.

Beriain (1625):

162v. *Erranicaçu* Espiritu Sanduaren doayac.

Aurrekoan bezala, gauza bera ikusten dugu kasu honetan: Hg(GN) Zaharrean ez dira agertzen geroago Hg(GN) Klasikoan izango ditugun NOR-NORK \**ezan*-en objeto pluraleko formak. Forma tipiko hauek baditugu dagoeneko Elizalderen dotrinan, ordea: *Erranzazquizu Elizaren Mandamentuac* (Pagola 1994:50), *Erranzquizu Arimaren Potenciacy*, *Erranquizu Espiritu Sanduaren Donac* (1994:61).

Hg(GN) Zaharraren testuetan, beraz, ez da oraindik gertatu pluralizatzaileen “nahasketa”: *-zki-* (jatorriz, antza, *-z-* + *-ki-*) dugu oraindik NOR-NORI-NORK formen pluralizatzailea soilik, eta *-it-* NOR-NORK formena (\**edun* eta \**ezan* laguntzaileen kasuan da *-it-*; bestela *-z-* edo *-tza-* normalean). Geroago, hortaz, jazo zen nahasketa: \**ezan*-en NOR-NORK formek, berezko pluralizatzaile absolutiboa (*-it-*) utzi eta, NOR-NORI-NORK formen pluralizatzailea (*-zki-*) hartu zuten, nonbait XVII eta XVIII mendeen bitartean. Aldiz, (e) kasuan kontrako fenomenoak daukagu hain justu, oraingoan \**edun* aditzerako; aldaketa hau beranduxeago gertatu zelarik Hg(GN)ren historian.

Nahiko fenomeno inpredezibleak omen dira hauek, analogiak parte hartzen duen bakoitzean gertatzen den bezala. Alabaina, badirudi \**ezan*-en formen kasuan aurki genezakeela arrazoi bat. Izan ere, ez da solik pluralizatzailea (*-zki-*) “mailegatu” zena NOR-NORI-NORK formetatik NOR-NORK formetara, baizik eta forma osoak dira nolabait nahastu edo (neurri batean) bateratu zirenak, aldaketa fonetikoak direla medio (hain zuzen, sinkopa, *-R-*en galera, eta abar). Aldaketa hau azaltzeko, sakondu beharko genuke Hg(GN)ren \**ezan* formen analisisian, bereziki NOR-NORI-NORK formak aztertuz; zeintzu, hobeki esanda, \**erazan* aditz kausatiboari zegozkien. Beherago (4.2 eta 5 puntuetan) ihardungo dugu honetaz, azaletik bada ere. Baina, esan beharrekoa da gai honek beste artikulu bat merezi eta behar duela (1. oharrean dagoeneko esan dudanez).

### 3. ZALANTZAKO KASUAK

Atal honetan bi ezaugarri ikusiko ditugu, biak Iraganarekin zerikusia dutenak. Kasu hauetan ez da hain erraza erabakitzea berrikuntzak ala arkaismoak diren. Halere, printzipioz, badirudi beste bi inobazioren aurrean gaudela.

a) Hg(GN) Klasiko: *zekio* / Komunago: *zitzaion*

b) Hg(GN) Klasiko: *-Ø* Iraganean / Komunago: *-n* Iraganean

#### 3.1. Iraganeko NOR-NORI laguntzaileak

(a)-ri dagokionez, ez dut aurkitu adibide aproposik; hots, Iragan Indikatiboko laguntzaile intrantsitiboaren NOR-NORI formarik: ez

*zitzaion* erakorik, ez *zekio(n)* bezalakorik. Mitxelenaren ustez, ordea, “en alguna [zona] alto-navarra, como se ve ya en Mendiburu, la distribución original, independiente de *-iz(a)* y *-di* se mezcló, por decirlo así, haciéndose complementaria, de manera que al unipersonal *zen* ‘era’ podía corresponderle, en cuanto bipersonal [...] *zekion* ‘le era’, etc” (Mitxelena 1970:291, 18. oharra). Hau da, bere aburuz, delako NOR-NORI “Aoristoa” berrikuntza modernoa da<sup>3</sup>.

Baliteke berrikuntza izatea. Baina ohar gaitzen hipotesi honek arazo bat duela azaltzeko. Alegia, epealdi labur xamarraren buruan kontrako norantza duten bi aldaketa proposatu behar ditugula. Aurrena Aoristoaren galera (XVI mendean edo: ikus 4.1 puntua), eta XVIII menderako NOR-NORI Aoristoaren agerpena. Holako “inboluzioak” posibleak dira, baina beharbada egokiago litzateke supozatzea arkaismo baten kontserbazio partziala dugula hemen. Zalantza hauek desager litezke, agian, ikerketa jarraituz, eta Iragan Indikatiboko NOR-NORI formaren bat topatuko bagenu Hg(GN) Zaharraren testuren batean: tipo batekoa ala bestekoa<sup>4</sup>.

### 3.2. Iraganeko marka

Antzeko arazoak azaltzen zaizkigu (b) ezaugarriarekin: Iraganeko *-n / -Ø* txandakatzearekin, hain zuzen. Hemen, ostera, problema orokorragoa da: ez dakigu segurtasunez euskararen historian (aurre-historian, hobeto esanda) bietariko zein den zaharrena<sup>5</sup>.

<sup>3</sup> Aitzitik, kontrako eritzikoa dugu Azkue. Beronen ustez, ez bakarrik *zekion* bezalako formak, *dakio* erakoak ere (Etxarri-Aranazen aurkitu omen zituenak) jatorrizkoak dira; hots, *zaio* eta *zitzaion* baino zaharragoak, azken hauek aurrenekoak (indikatiobotik) desplazatu zituztelarik. (Azkue 1923-25:574-576).

<sup>4</sup> Aurreko oharrean aipatu dudanez, arazoa are zailagoa egiten zaigu, ez bakarrik Iragana, baizik eta Oraineko NOR-NORI formak ere kontutan hartzen baditugu. Ikuspegi kronologiko zabala hartuaz, bi problema erakusten dituzte NOR-NORI formek, beraz: bata orokorragoa (Aoristoarena), eta bestea NOR-NORI laguntzailei soilik dagokiena. Azken honetaz esan behar da, ez dagoela batere garbi, niretzat, normalean *\*edin-i* adjudikatzen dizkiogun formak (*dakion* tankerakoak) jatorriz *\*edin* erro batetik sortu zirenik. Badirudi *-dakit-*, *-dakik-*, *-dakio-* eta abarreko formak *da* formatik sortuak direla, eta ez *\*dadi* batetik. Hauetatik, analogiaz, *-nakik-*, *-nakio-* eta gainontzeko formak eratuko ziratekeen. Egokia iruditzen zait, bada, *\*ekin* erro sekundario bat postulatzeko forma hauetarako. (Honek ez du esan nahi nahitanahiez *\*ekin* intrantsitibo honen forma ez-pertsonalik zegoenik).

Guzti hau kontutan harturik, hortaz, baliteke ondoko hipotesiarekin espekulatzeko: *\*dakio* formak jatorriz *izan*-en formak ziren, eta *zaio* bezalako forma berriagoek indikatibotik desplazatu zituzten, subjuntibora baztertuz. Aldiz, *\*edin*-en jatorrizko NOR-NORI formak (*\*dadikio*), inoiz existitzekotan, hain antzekoak ziren *\*dakio* formekin ezen hauekin bateratu bait ziren.

Momentu honetan, aurreratu dudana hipotesi espekulativo hutsa baino ez da. Agian ez da beharrezkoa suposatzea *-dakio-* formak, *\*edin*-enak ezik, *izan*-enak zirela. Gainera, azaltzeko geldituko litzaiok aurreko nire hipotesiari zergatik sortu beharko ziren *zaio* bezalako forma berriagoak.

<sup>5</sup> Aldai (arg.) lanean proposatu dut Iraganeko *-(e)n* markak perfektiboko esanahia izan zuela jatorriz, eta hain zuzen perpaus subordinatueta (inperfektibo) formatatik sortu zela. Hau da, Iraganeko markak *-(e)n* subordinatzailean izango luke jatorria. Bestela esanda, Iraganeko formak menpeko forma ber-analizuak izango lirateke, jatorriz.

Honek ez digu oraindik asko argitzen, hala ere, zeren ez dakiguna da Iragan Perfektiboko formek, aurre-euskararen forma independentetzat ber-analizuak izandakoan, perpaus subordinatueta zeukaten itxura berbera mantenduko zuketean, alata menpeko formatatik desberdintzeko, itxura aldatuko zuketean.

Hipotesi bezala, onar genezake epe luze batez egon zitekeela tendentzia (edo “kontzientzia”) bat Iragan (Perfektibo) forma independenteak eta itxura berdineko forma subordinatuak bereizteko (batez ere, baina ez soilik, indikatiboa subjuntiboarekin oposatzeko, seguruenik). Tendentzia hau, jakina,

Hg(GN)ren historiari dagokionez, arazoak ez dira txikiagoak: bietako adibideak agertzen bait dira testu zaharretan: Beriainengan, kasu, nahiz *-ndunak* gehiengo bide diren; 1609.eko Poesietan, ordea, *-ngabeek* osatzen dute gehiengo (ikus Sarasola 1983:123 edo Kerexeta 1991:168-169). Testurik zaharrenetako agerpen maiztasunari bagagozkio, beharbada topa genezake erizpide bat esateko *-ndun* formak izan litezkeela zaharrenak. Izan ere, Beriainengan gehiengoak izanik, Zannetoren Kredoan (1614) eta Katezismoaren zatietan (1614 baino lehenagokoa), *-ndun* formak bakarrak dira eta:

h – /Credo/. *Iayo çen, passatu çuen, crucificatu çen, <or>ççi çen, jautsi çen, resuscitatu çen, ygan çen.*

h – Zannetto. *ucandu baysen concevituric, jayo sen, padecitu çuen, Crucificatu ucandu sen, orci ucandu sen, jausi sen, Resuscitatu sen, ygan sen.*

Arestian esandakoa zuzena balitz, Hg(GN) Klasikoaren *-Ø* Iragana XVII mendean hasitako berrikuntza bat litzateke, non aztertzen ari garen testuetako batzuk (1609ko Poesiek, batez ere) aldaketaren (*-naren* galeraren) lehenengo testigantza osatuko luketeen. Alabaina, niretzat, hau ez dago zeharo garbi. (Ikus bedi baita 5. oharra, ikuspegi zabalago baterako).

#### 4. BERRIKUNTZA ZAHARRAK

Azkeneko atal honetan ikusiko ditugun bi ezaugarriak bai direla agertzen dagoeneko Hg(GN)ren lehenengo testuetan<sup>6</sup>. Beraz, oso zaharrak dira euskalki honen historian, eta benetan adierazgarriak Euskara Zaharraren (XVI

*-naren* galeran isladatuko zen. Kontutan hartu behar da, gainera, normalean *-n-a* galduta ere, oraindik bokal bat gelditzen zela, marka bezala, Iragan Perfektiboko formak Inperfektibotik bereizteko (azentuz ez hitzegitearren): *-e* Hegoaldeko Goiafarreran eta *-a* Bizkaiera Zaharrean (ikus Mitxelena 1977:137). Hau nahiko garbi ikusten dugu Bizkaiera Zaharreko adibideetan: RS *egi-a* ‘hizo’, *nengi-a* ‘hice’; Mikoleta *nindia, ekida, zengida, zengia* (adibideak Kerexeta 1991:169tik hartuak). Oposaketa hirukoitza genuke, beraz, hasiera batean: *\*nengi* (Inperfektiboa ‘hacia’), *\*nengi-a(n)* (Perfektiboa ‘hice’), *\*nengi-an* (menpekoetan, adibidez Subjuntiboa ‘para que hiciera’, eta abar). [Egoera paraleloa izango genuke, Bizkaiera Zaharrean, Orain tempuserako: *ax* ‘eres’, *axa* ‘serás’, *axan* ‘seas, eta abar’ (ikus Mitxelena 1954:796-798)].

Denboraren poderioz (batik bat konjugazio perifrastikoaren jeneralizazioaz), ordea, euskara-aurreko Inperfektiboa galdu eta, *-n-a* Iragan tempusaren marka bezala onartuko zen. Hau fasilizatzeke, faktore inportantea izango zen Indikatibo / Subjuntibo oposaketak formalki laguntzaile aukeraketarantz (*izan*–*\*edun* vs. *\*edin*–*\*ezan*) eboluzionatu zuela. Baina aldaketaren motorea Oraina / Iragana oposaketarako marka bereizle garbia bilatzea izango zen.

<sup>6</sup> Bi ezaugarri bereizle hauetaz gain, Hg(GN) Zaharraren aditz laguntzaileek badituzte, jakina, aipatzea merezi duten berezitasun gehiago. Beste askoren artean, izenda genitzake: **a)** indikatiboko *\*eradun* NOR-NORI-NORK laguntzailearen erabilera, *\*edun*-en (*-i-*) formen alboan (oso normala Ekialdeko euskalki guztietan garai zaharretan: ikus Lakarra 1986:658-659); **b)** *-o-te-* datiboko 3. pertsona pluraleko marka (ikus Gómez & Sainz 1995:251); **c)** bigarren pertsonako inperatibo hirupertsonaletako D– aurrizkia (subjuntibo soila balitz bezala); ikus beheago: *gure egun orosco oguia eman draçaguzu egun* (guztiz arrunta zena Lapurdiko hainbat autoretan ere: Ziburuko Etxeberrigan, Haranederrigan, etab.; Patxi Altunak, komunikazio pertsonala); **d)** *-æren* galera (apokopea) *\*ezan*-en zenbait formetan: *egin badez* (Pagola 1995:58), *eraman baliz* (Pagola 1994:55), *gurucifica bez* (normala ere Bizkaiera Zaharrean eta, *\*ezan*-ez gain, *esan*-ean ere, eta batez ere orokorra *izan* aditzaren formetan: ikus Mitxelena 1977:132).

mendekoa) euskalki sailkapen posible baterako. Ezaugarriok “berrikuntza” hitzaz izendatu ditut, baina bata (aoristo galerarena) arraroa egiten zaigu berrikuntzat hartzean (azkenez euskalki guztioi komuna izan bait zen berrikuntza hau), eta bestea (*\*erazan* laguntzailearena) berrikuntza izan ezik hautaketa paraleloa izan liteke beharbada. Ikus ditzagun.

#### 4.1. Aoristoaren galera

Ez nuke kanpoan utzi nahi zerrenda subjektibo honetatik beste ezaugarri garrantzitsu bat. Garrantzitsua diot, ez agertzen delako Hg(GN)ko gure testu zaharretan, haietan falta delako baizik<sup>7</sup>. Iraganeko Perfektibo Arkaikoa (Aoristo delakoaz) ari naiz. Aoristoari dagokion egitura bera (–Ø + *\*edin/\*ezan*) erabili egiten zen Hg(GN)n: subjuntiboan, noski, eta, subjuntibo propiotik at, denborazko esaldietan eta baldintzetan (oso berandurarte gainera). Baina ez dago inoiz dokumentatuta indikatiboko iragan perfektiboko esanahiaz (ikus 7. oharra, dena den).

Konpara bedi garai berdineko Bizkaiera edo Zubererarekin, non iraganeko Perfektibo Arkaikoa (Aoristoa), zegoeneko arkaikotzat harturik izan arren seguraski, askotan agertzen bait zaigu ditugun testuetan. Kontutan har bitez XVI mendeko Lapurtera eta Behenafarrerazko testuak ere. Benetan interesgarria litzateke Elsoren dotrina bagenu. Nahiz eta, apika, gauzak aldatuko ez lituzkeen. Izan ere, Aoristoa, dirudienez, lehenago desagertu zen hegoaldeko eta erdiko lurraldeetatik, eta, arkaismo bezala, kontserbatu muturretakoetan. Hor dugu halaber Betolatzaren testigantza eta, zerbaitetarako balio badu, Landucciren adibide bat ere: “*arremetidu çan: acometimiento*”.

Ondorioz, euskalki honek, guztiek ez bezala, hartuta zuen jadanik XVI menderako laguntzaileen arteko aukeraketa berria, *\*edin* eta *\*ezan* indikatibotik kanpo utziaz. Hori dela eta, beraz, terminologia aldetik, laguntzaile oposaketari (*izan–\*edun/\*edin–\*ezan*) ohizko “indikatibo/subjuntibo” edo “erreal/irreal” deitzeari zuzen deritzot Hg(GN) Zaharrerako, (irrealaren barnean, subjuntiboa ezezik, ahalera eta agintera ere daudelarik). Haatik, kontutan hartu behar da beti ere, garai zaharragoetan (euskararen aurre-historian bereziki) indikatiboan ere erabiltzen zirela bigarrenengo motako laguntzaileak<sup>8</sup>.

#### 4.2. \*ERAZAN laguntzaileaz

1. oharrean aipatu dudan bezala, baldin Hg(GN) Zaharraren testuetan badago ezaugarri inportante bat, hori *\*erazan* laguntzailearen erabilera da. Ez dut uste beste inongo euskalkitan dokumentatuta dagoenik laguntzaile honen agerpena. Beriainen obrak, ostera, josita daude honelako adibideez.

<sup>7</sup> Ez ditut hemen kontutan hartuko 3.1 puntuan aipaturiko Lizarragaren NOR-NORI Aoristoko formak. Printzipioz berrikuntza modernoak direla suposatzen dut, nahiz eta nire zalantzak ditudan. Hala ere, holako formak Hg(GN) Zaharrean aurkituko balira ere, eta beraz arkaismo baten kontserbaziotzat hartuko bagenitu, orduan ere oso kontserbazio partziala litzateke hori (NOR-NORI forma soilik), eta hortaz berrikuntza neurri handi batean emana zela kontsideratu beharko genuke.

<sup>8</sup> Aoristoari buruzko azterketa orokor baterako, ikus bedi Aldai (1998): “A propósito del Aoristo vasco”.

Beriain (1621):

27v. *nola atreuicen den escacera Erregueri merchede eguindraçon.*  
 18v. *ecin Andre dona Mariac, Aynguiruec eta sandu guciec eman draçoquete ambat honra eta contentu nola Iesu Christoc.*

Beriain (1626):

84. *Gure egun orosco oguia emandraçaguzu egun, eta barcadrazqui-guçu gure zorrac.*

Forma hauek Beriainengan baino ezagutzen omen ez zirelarik, garrantzitsua zen aurkitzea beste edonon. Hemendik dator Hg(GN) Zaharraraz ditugun testu laburren inportantzia. Izan ere, “Fragmentos de un catecismo” delakoan honelako forma bi agertzen dira. Eta 1609ko Poesietan beste bat<sup>9</sup>.

Fragmentos de un catecismo:

/Pater Noster/ *emandraçaguçu egun...*  
 /Diez Mandamientos/ *...igarrena, yorri<i> <...> <e>ztrazogula ...*

Poesías premiadas (1609):

151. *Gari lindoau saltçeagatic / dabilla carriquetan, / eta eros draço-gun<sup>10</sup> gatic / pregonatçen du onlatan.*

Azaltzeke gelditzen da forma hauek zer diren; hau da, zer aditzari dagozkion eta nola dauden eratuta. Behin baino gehiagotan esan dudanez, gai honek (NOR-NORI-NORK formenak, orohar) beste lan bat (edo gehiago) merezi du. Ideia batzu, dena dela, hemen aurrera daitezke.

Lehenengo eta behin erabaki behar dugu zein aditzen adibideak diren horiek. Goian ikusten denez, beti agertzen dira subjuntibo, potentzial eta inperatiboko (irrealeko) NOR-NORI-NORK kasuetan. Hortaz, \*ezan aditzarekin erlazonaturik egongo direla ez dago dudarik. Nik proposatzen dudana da aztertzen ari garen formak \*ezan-en “kausatiboa” litzatekeen \*erazan aditzari dagozkiola, hain zuzen. Era berean proposatua izan da indikatiboko NOR-NORI-NORK d(e)raut bezalako formak \*edun-en kausatiboa den \*eradun-en formak direla. (Gómez & Sainz 1995:240)<sup>11</sup>.

<sup>9</sup> Bi forma gehiago agertzen dira orain dela oso gutxi ezagutu dudan Hervás-en Aitagurean (Satrustegi 1990:46): *emandrazaguzu eguneroco oguid egun; eta barcadrazquiugu guri guëuren zorrac*. Satrustegiren artikulu hau oso interesgarria da (beste gauza askoren artean) aurkezten dituen bi Aitagureak konparatzeko orduan: Aresokoa bata (berak sakonki aztertzen duena); Hervás-ena, bestea. Izan ere, orain dagokigun NOR-NORI-NORK \*erazan laguntzailearen formarik ez da agertzen Aresoko Aitagurean: *barca jazquiguçu guere peccatuac*. Beraz, nahiz eta biak antza Goinafarreraz idatzirik egon eta oso zaharrak izan (biak XVI mendekoak seguraski), subjuntiboko NOR-NORI-NORK laguntzaile ezberdinak erakusten dituzte. Konklusioa esanda daukagu dagoeneko: \*erazan laguntzailea Hegoaldeko (GN)n baino ez dago dokumentaturik. Hervás-en Aitagurea Hegoaldeko Goinafarreraz idatzirik dagoen bitartean, Aresokoa Iparraldeko Goinafarreraz bide dago, Gipuzkeratik askoz hurbilago (eta ez soilik komentatzen ari garen ezaugarrian: cf. *dizquigue, diezcum, erorçen, gaiçetarica*).

<sup>10</sup> Mitxelenaren edizioan (1964:116) *dracogun* dakar. Aurreko beste adibideekin erkatuz, nahiko ziurra da *draçogun* behar dugula irakurri. Horrela proposatu nuen nik lehenbizi lan hau idatzi nuenean eta Kerexeta (1991) lana ezagutu gabe. Zorionez, orain badakigu irakurketa hori guztiz ziurra dela. Izan ere, Kerexetak esaten digunez, orijinalen irakurtzen dena *draçogun* da eta (1991:167-168).

<sup>11</sup> Ez nago oso ziur \*erazan laguntzailearen existentzia proposaturik dagoen eta are gutxiago onarturik euskalarien artean. \*Eradun-ena, nik uste, nahiko hedaturik dago. Azkuek (1923-25:565) eta



Bigarrenez ikertu behar dena da *-ra-* artizkiaren funtzioa zein den kasu hauetan. Eta hau bai dela beste lan baterako gaia. Betidanik onartu dugu *-ra-* artizkiak (aurrizkiak) kausatiboaren esanahia azaltzen zuela. Hau, funtsean egokia izan arren, ez da nahikoa *-ra-* agertzen deneko hainbat kasu esplikatzeke. Gómez & Sainz (1995:240) ildo zuzenetik doaz esaten dutenean “This hypothesis would explain the use of these forms in contexts with ergative and dative agreement, since the causative introduces a new argument”. Ideia hau, garbi dago, jarraitu beharra daukagu; nire ustez, Tipologia Linguistiko eta Gramatikalizazio Teoriaren eskutik. Badirudi honek eramango gaituela proposatzera *-ra-* marka ez zela bakarrik erabili izan kausatibo moduan lexiko berria sortzeko, baizik eta (kausatiboaz aparteko) funtzio gramatikala ere izan zuela<sup>12</sup>: trantsitibitatearen balentzia igotzea, hain zuzen<sup>13</sup>.

## 5. KONKLUSIOAK

Artikulu honetan Hg(GN) Zaharraren ezaugarrietako zenbait aztertu ditut, eta nolabait konparatu Hg(GN) Klasikoarekin (Elkanoko Lizarraga). Ikerketa partzial honetatik atera genezakeen konklusioa nahiko orokortzat har daitekeela uste dut. Jakiteko: Hg(GN) Klasikoaren berezitasun asko eta asko zeharo berrikuntza modernoak direla, testu zaharretan agertzen ez direlarik. XVI-XIX mendeetako tartean, beraz, Hg(GN) Zaharretik Hg(GN) Klasikora bitartean, aldaketa garrantzitsuak, edota behintzat oso nabariak, jaso zituen euskalki honek, garai historikoan azter daitezkeen fenomenoen ondorio, hain zuzen.

Lafonek (1943, II:37), dagoeneko, seinalatzen zuten *\*edun-*en kausatiboa izan zitekeela *deraut* bezalako formen jatorria. Halere, gaur egun, Gómez & Sainz (1995) lanetik kanpo, ez da erraza aurkitzea *\*eradun* laguntzaile berezi bezala trataturik. Euskaltzaindia (1987:118)an, adibidez, ez da esaten holako laguntzailerik dagoenik. Seguraski kontsideratzen dutelako *\*edun-*en beraren formak direla horiek. Printzipioz onargarria deritzot azken analisi honi. Uste dut, hala eta guztiz, komenigarria dela *\*eradun* *\*edun-*etik bereiztea. [Era berean proposatuko nuke 4. oharrean aipatu dudana *\*ekin* ere laguntzaile berezi bezala tratatzea].

Are gutxiago aipatzen da, jakina, *\*erazan* laguntzailea. Lakarrak (1983:115-116), Mitxelenari jarraituz, *\*eraz-* erro bat proposatzen du Barrutiaren ustezko forma batzu (164, 484) adierazi nahian. Haatik, gero suertatu zen zoritxarrez, (Barrutiaren orijinala aurkitu ondoren), adibide horiek kopiaren okerrak baino ez zirela. Honetaz gain, nik ez dut ezagutzen *\*erazan-*en aipamenik, Pagola (1995:26, 29. oharra) ez bada. (Esan behar dago, dena den, Pagolak ezagutzen zuela, oker ez banago, nire lan hau ohar hori idatzi zuenerako). Kerexeta (1991:168-169), bere aldiz, Hg(GN)ren *drazogun* bezalako adibide hauen berezitasunaz oharutz, saiatzen da forma hauek azaltzen, baina ez ditu ongi bereizten *\*eradun* (indikatio) eta *\*erazan* (subjuntio) tipoetakoak.

<sup>12</sup> Lafonek (1943, I:37) jadanik aurreratzen du ideia hau: “On entrevoit par là comment un ancien causatif de *du-* a pu fourmir à *du-* des formes à objet de référence [datibodunak] [...] *darauka, drawka*, dont la valeur causative s’était effacée” (letra beltza, nirea). Baita Azkuek ere, neurri batean (1923-25:565): “El segundo elemento reflexivo [markatzailea] de recipientes transitivos [NOR-NORI-NORK], sinónimo del anterior [-*tsi-*], es el infijo *-ra-*. Figura ya este elemento en la Derivación formando verbos factitivos”.

<sup>13</sup> *\*Edun* / *\*eradun* eta *\*ezan* / *\*erazan* laguntzaile bikoteetan, *-ra-* morfemak aditz monotrantsitibotik (NOR-NORK) aditz ditrantsitibora (NOR-NORI-NORK) aldaketa markatuko luke. Bazegoen beste laguntzaile bikote bat, gehiegitan ahaztuta izaten dena, eta hemen aipatzea komeni zaiguna: *\*joan* / *\*eroan* (Bizkaiera Zaharrean) *\*joan* / *\*eraman* (Ekialdeko testu zaharretan). Bikote honetan, *-ra-* morfemak aditz intrantsitibotik aditz monotrantsitiborako aldaketa markatzen zuela analiza genezake.

Aipatzeko dira, ordea, Hg(GN) Klasikoaren bi ezaugarri, non ez baita batere erraza jakitea berrikuntzak ala arkaismoen kontserbazioak diren. Aztertu ditugun ezaugarri bi hauek Iraganeko NOR-NORI laguntzaileak (*zekio* tipokoak, *zitzaion* motakoen ordez) eta Iraganeko marka ( $-\emptyset$ ,  $-n$ ren ordez) dira. Geroko ikerketak zalantza hauek argituko dituelakoan nago. Bitartean, txandakatze hauek esplikatze bidean, eta behinbehineko azalpen modura, proposa genezake inboluzio bat eman zela kasu bakoitzean garai zaharretik garai klasikorako doan epean, horrela jatorrizko egoerara itzuliaz. Honek suposa lezake, beharbada, epealdi luzearen buruan bi posibilitateak (*zekio* eta *zitzaion*; Iraganeko  $-n$  eta  $-\emptyset$ ) zirela ezagunak<sup>14</sup>.

Azkenez, aipatu beharra dago nire ustez Hg(GN)ren ezaugarririk garrantzitsuena dena: *\*erazan* laguntzailearen erabilera irrealeko NOR-NORI-NORK formetan. Ezaugarri hau da apika Hg(GN) Zaharra beste euskalkietatik desberdintzen duen nabarmenenetakoa. Hg(GN) Klasikorako eboluzioan barrena, aldiz, *\*erazan* laguntzailearen erabilera galdu (hobeki esan, “ezabatu”) egin zen, alabaina soilik fenomeno fonetikoek eraginik. Bere partez, *\*erazan* laguntzailearen sorreraren ikerketari oso inportante deritzot euskararen historiarako. Azken hau hurrengo lan baterako gaitzat utziko dugu.

#### AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- ALDAI, G. (1998). “A propósito del Aoristo vasco”. *Fontes Linguae Vasconum* 30, 377-386.
- ALDAI, G. (argitaratzeko). “Historia y prehistoria del sistema verbal vasco”.
- AZKUE, R.M. (1923-25). *Morfología Vasca*. Berrinprimatua: Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969. 2 tomos.
- Euskaltzaindia (1987). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Euskaltzaindia, Bilbao.
- GÓMEZ, R. & SAINZ, K. (1995). “On the origin of the finite forms of the Basque verb”. In Hualde, Lakarra & Trask (eds), *Towards a history of the Basque language*. John Benjamins, Amsterdam. 235-274.
- KEREXETA, M.J. (1991). “Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610”. In Lakarra (ed), *Memoriae Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. 161-183.
- LAFON, R. (1943). *Le système du verbe Basque au XVI siècle*. Berrinprimatua: Elkar, 1980.
- LAKARRA, J.A. (1986). “Bizkaiera Zaharra gainerako euskalkien artean”. *Anuario del Seminario “Julio de Urquijo”* 20, 639-681.
- LAKARRA, J.A. (1983). “Acto para la Nochebuena: Texto y traducción”. In Knörr et al., *Gabonetako Ikuskizuna. Acto para la Nochebuena*. Arabako Foru Aldundia, Gasteiz. 75-126.
- MITXELENA, L. (1954). “Nota sobre algunos pasajes de los Refranes y Sentencias de 1596”. Berrinprimatua in *Sobre Historia de la Lengua Vasca*. 2 tomo. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1988. 792-798.
- MITXELENA, L. (1964). *Textos Arcaicos Vascos*. Berrinprimatua: Gipuzkoako Foru Aldundia-Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 1990.

<sup>14</sup> Euskararen historia (dokumentatua), zoritxarrez, labur xamarra denez, oso zaila da askotan esatea daukagun dokumentazioaren aurrean zein den aldaketa baten norantza. Hots, historiara daukagun leihoa estuegia da batzutan garbi bereizteko benetako aldaketa sakonak inboluzio lokaletatik. Hortaz, zenbaitetan ez da hain inportantea euskalki batean gertatutako aldaketa bat, nola euskarak orokorrean pairatu dituen eboluzio jeneralak. Azken hauei dagokienez eta esku ditugun kasu bietarako, nire ustea esanda dago jadanik. Alegia, Aoristoaren kasuan, *\*edin*–*\*ezan* laguntzaileak daramatzaten formak direla zaharrenak iragan perfektibo esanahirako (ikus Aldai 1998). Iraganaren markaren kasuan, 3. oharrean emandako ikuspegia da momentu honetan esatera ausartuko nintzatekeen guztia.

- MITXELENA, L. (1970). “Nombre y verbo en la etimología vasca”. Berrinprimatua in *Palabras y Textos*. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987. 283-309.
- MITXELENA, L. (1977). *Fonética Histórica Vasca*. 2. edizioa. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- MITXELENA, L. (1981). “Lengua común y dialectos vascos”. Berrinprimatua in *Palabras y Textos*. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987. 35-55.
- ONDARRA, F. (1981). “Primer sermón en vascuence navarro (1729)”. *Fontes Linguae Vasconum* 13, 147-173.
- PAGOLA, R.M. (1994). “Elizalderen dotrina”. *Enseiukarreen* 10, 17-63.
- PAGOLA, R.M. (1995). “Beriainen dotrina”. *Enseiukarreen* 11, 15-69.
- SARASOLA, I. (1983). *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Berrinprimatua: Gipuzkoako Foru Aldundia-Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 1990.
- SATRUSTEGI, J.M. (1990). “Texto vasco del Padrenuestro en versión del s. XVI”. *Fontes Linguae Vasconum* 22 (55), 37-48.

### LABURPENEA

Artikuluak jarraipen historikoa egin nahi die hegoaldeko nafarrera garaieren ezaugarri batzuei. Antzinako garia (XVI.-XVII. mendeak) eta, nolabait esateko, garai klasikoa (Joaquín Lizarraga, Elkanokoa; XVIII.-XIX. mendeak) konparatzen dira. Ikerketa laguntzaitetara mugatzen bada ere, ateratako konklusioak adierazgarriak izan daitezke oso: hegoaldeko nafarrera garaieren ezaugarri bereizle gehienak duela gutxiko berrikuntzak direla, alegia, XVII. eta XIX. mende bitartekoak, hain zuzen. Ez dago, hala ere, jakiterik noizkoak ote diren beste ezaugarri batzuk: esate baterako, lehenaldiko formetan *-n* ez izatea, edota *zekio(n)* bezalako laguntzaileak erabiltzea, *zitzaion* erabili beharrean. Antzinakotasun frogatua duten ezaugarrien artean (gutxienez XVI. mendekoak baino lehenagokoak direnak), \**erazan* laguntzailearen erabilera subjuntiboko NOR-NORI-NORK formetan da aipatzekoa.

### RESUMEN

En este artículo se pretende hacer un seguimiento histórico de algunas características verbales del Alto-Navarro Meridional. Se compara el periodo antiguo (siglos XVI-XVII) con el que podríamos llamar periodo clásico (Joaquín Lizarraga, de Elcano; siglos XVIII-XIX). A pesar de que el estudio se limita a los auxiliares, la impresión que se obtiene puede ser bastante representativa; a saber: que la mayoría de los rasgos distintivos del Alto-Navarro Meridional Clásico son innovaciones muy recientes que se dieron entre los siglos XVII-XIX. Hay, sin embargo, algunos rasgos que no es fácil asegurar si son innovaciones recientes: por ejemplo, la falta de *-n* en las formas de pasado y el uso de auxiliares del tipo *zekio(n)* en vez de *zitzaion*. Entre los rasgos con antigüedad probada, (al menos anterior al siglo XVI), destaca el uso del auxiliar \**erazan* en las formas NOR-NORI-NORK de subjuntivo.

### RÉSUMÉ

On prétend faire dans cet article un suivi historique de quelques caractéristiques verbales du Haut-Navarrais Méridional. On compare la période ancienne (XVI-XVII ème siècle), avec celle que l'on pourrait appeler période classique (Joaquín Lizarraga, d'Elcano; XVIII-XIX ème siècle). Bien que l'étude se limite aux auxiliaires, l'impression obtenue peut être assez représentative; c'est à dire: que la plupart des traits distinctifs du Haut-Navarrais Méridional Classique sont des innovations très récentes qui s'utilisaient entre le XVII ème et le XIX ème siècle. Il existe, cependant, quelques traits dont il est difficile d'assurer s'il s'agit d'innovations récentes:

par exemple, le manque de *-n* dans les formes de passé et l'utilisation d'auxiliaires du type *zekio(n)* au lieu de *zitzaion*. Parmi les traits dont l'ancienneté est prouvée, (du moins, antérieure au XVI<sup>e</sup> siècle), il faut souligner l'utilisation de l'auxiliaire \**erazan* dans les formes NOR-NORI-NORK du subjonctif.

## ABSTRACT

It is the object of the present article to trace the historical development of some of the verbal characteristics encountered in the Southern Upper-Navarre region. The ancient period (XVI-XVII<sup>th</sup> century) is compared with what we might refer to as the classical period (Joaquín Lizarraga, from Elcano; XVIII-XIX<sup>th</sup> century). Although the study is limited to auxiliaries, the impression gained might prove fairly representative, in that it is shown that the greater part of these distinguishing features of Southern Upper-Navarrese Classical Basque are extremely recent innovations, from the XVII-XIX<sup>th</sup> century period. There do exist, however, features which cannot easily be referred to as recent innovations: for instance, the lack of the *-n* on past forms and the use of *zekio(n)* –type auxiliaries instead of *zitzaion*. Of those features proven to be ancient, (at least prior to the XVI<sup>th</sup> century), it is worth highlighting the use of the \**erazan* auxiliary in the NOR-NORI-NORK subjunctive forms.